



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/04/13



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONGOZ
2026/04/14

**2026ko OTSAILAREN 26AN BASABURUKO UDALAK
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2026ko otsailaren 26an ,arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutakod deialdia eginda, Santos Etxegia alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udalidazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: M^a Mar Ansorena, Mikaela Elizalde, Alaia Etayo, Julen Beunza eta Iker Isiegas.

BERTARATU EZ DIRENAK: Javier Auza.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onspena.

Urtarrilaren 28ko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena, inork eragozpenik agertu ez duenez.

2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/04/13

- 2025/9 alkate ebazpena Obra baimena onartuz Itsasoko 4. Poligonoko 496. Lursailean etxebizitza eraikitzeko.
- 2025/10 alkate ebazpena onartuz obra baimena Udabeko Arrosarioko Andre Mariaren kaleko 24. Zenbakian erabilera anitzetako eraikina egiteko.
- 2025/11 alkate ebazpena onartuz obra baimena Beramendiko 2. Poligonoko 19. lursailean erabilera anitzetako eraikina egiteko.
- 2025/12 alkate ebazpena obra baimena Orokietako 8. Poligonoko 344. Lursailean riostra berria jartzeko.
- 2025/13 alkate ebazpena ez kaltegarria aitortuz Gartzarongo 6. Poligonoko 206. Lursailean 50 erlauntz jartzeko.
- 2025/14 alkate ebazpena onartuz Humus Sapiens S.L enpresak aurkeztutako aurrekontua eta esleitzea Humus Sapiens S.L B-31733249. IFZ-ri eta Mutiloako Eguzki plaza 17 helbidea duen enpresari, Basaburuko baso babeslearen 2. Fasearen proiektua idaztea eta obra zuzentzea, 7.000 eurko aurrekontuarekin BEZ kanpo
- 2025/15 alkate ebazpena onartuz NA 8988 AF matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea.
- 2025/16 alkate ebazpena onartuz NA 7445 AX matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea.
- 2025/17 alkate ebazpena onartuz 8460 BDM matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea.
- 2025/18 alkate ebazpena onartuz NA 6741 AK matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea.
- 2025/19 alkate ebazpena onartuz 5619 BFS eta NA 8450 AP matrikuladun autoen zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea
- 2025/20 alkate ebazpena ez onartuz Miguel Angel Osoz Arcek, Arraratsko kontzejuaren izenean aurkeztutako diru laguntza eskaera, eskaeran zehazten den etxebizitzak ez duelako betetzen ordenantzaren 3.2 artikuluan adierazten dena "udalaren babesetik kanpo geratzen da eskatzailearen ohiko etxebizitza iraunkorrarekin zuzeneko loturarik ez duena.
- 2025/21 alkate ebazpena Amets Gardezabal Cañadak aurkeztutako aurrekontua eta esleitzea Amets Gardezabal Cañadas 72806161 Y NAN zenbakidunari eta Lakaben helbidea duenari, Basaburuko baso babeslearen 2. Fasearen azpiegitura obrak egitea, 17.000 eurko aurrekontuarekin BEZ kanpo.
- 2025/22 alkate ebazpena esleituz Juan Manuel Arangoa Aguirre 15863968V NAN zenbakidunari 50 tn egur, 3.750 eurotan BEZ kanpo..



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONGOZ
2026/04/14





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/04/13

2025/23 alkate ebazpena ez kaltegarria aitortzea Beramendiko 1. Poligonoko 83. Lursailean 3 erlauntz jartzea.

-2025/24 alkate ebazpena baimena emanaz Marta Gartzia de la Barrerari fooktruck bat jartzeko Apeztegiherriko eraikinaren inguruan dagoen guneko publikoan, 1A zonaldean.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arteko alkate ebazpenak.

3.- 2025eko aurrekontu aldaketak. Behin betiko onespena.

Alkateak gogoratzen die bildutakoei hasiera batez onartu zirela aurrekontu aldaketak abenduaren 22ko batzarrean, 1998/270 Foru Dekretuaren 33 artikulua jarraituz, erabaki hau Nafarroako Aldikari Ofizialean argitaratu zen 15 egun baliodunen epean interesdunek alegazioak aurkeztu zituzten. Hasierako onespenerako iragarkia urtarrilaren 27ko Nafarroako 19. Aldizkarian argitaratu zen eta alegazio epea otsailaren 17an bukatu.

Epe horretan alegaziorik aurkeztu ez direnez eta aipatutako araudia jarraituz, behin betiko onespenera ematea dagokien 2025/1 etik 2025/8 aurrekontu aldaketari.

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia onartzen dute.

Behin betikoz onartzea 2025/1etik 2025/8 ko aurrekontu aldaketak eta 1998/270 Foru Dekretuaren 33 artikulua jarraituz, Nafarroako Aldikari Ofizialean behin betiko onespenera argitaratzea agindu eta aurrekontuen zehaztapenak modu xehetuan.

4.- Eguneko egoitzaren kudeaketa Basanet elkarte merkantilari ematea.

Eguneko egoitzaren kudeaketa Basanet elkarte merkantilak egingo zuela erabaki zutela gogoratzen die alkateak udaleko ordezkariari, baina kudeaketa hori gauzatzeko udalaren titularitatea duen eraikinaren kudeaketa elkarte merkantilak egiteko erabakia hartu behar dela dio alkateak, **hartu beharreko erabakia litzake, Basaburuko udalak kudeaketa gomendioa onartzea eta Basanet elkarte merkantilari Sasturain etxean egin den eguneko egoitzaren kudeaketa ematea.**

Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute Basanet elkarteari Sasturain etxeko eguneko egoitzaren kudeaketa ematea.

Erabaki hau Nafarroako Aldikari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu, Nafarroako Tokiko Administrazioako 1990/6 Foru Legearen 192. Artikulua jarraituz.





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/04/13



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONGOZ
2026/04/14

5.- Jaunsaratsko 15 eta 16. Lursailen izaera katastroan aldatzeko onespena.

Alkateak azaltzen du Sasturain etxearen ondoan bi eraikin daudela 15 eta 16. Lursailak, 15. Lursaillean eraikin bat dago, garaje erabilera zuena eta hori udalaren izenean dago eta bestetik 16. Lursaila lurra bezala agertzen da baina espazio publikoa da, kalearekin uztartu behar dena, hots kale izaera izan behar duela, hortaz bildutakoek katastroak aldaketa hauek islatuak izan daitezzen ondoren zehazten den erabakia hartzen dute 2006/21 Nafarroako Katastro eta Lurralde Ondasun Erregistroko Foru Legearen 31 eta 32. Artikuluak jarraituz:

- **Jaunsaratsko 5. Poligonoko 16. Lursailari lur izaera kendu eta gune publiko, kale publiko izaera eman.**

-**Jaunsaratsko 5. Poligonoko 15. Lursaila Jaunsaratsko kontzejuari zesioan ematea beti ere aipatutako lursail horren titularitatea egun udalarena izanik udalarena izatea jarraituz.**

- **Erabaki hau katastroko mantenimendu burutzen duen enpresari helaraztea.**

6.- Mozioak.

Martxoaren 8ko Nazioarteko Emakumearen egunaren baitan bi mozio jaso direla adierazten du alkateak, lehenengoa Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateak bidalitakoa ,ondoren transkribatzen dena:

“Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Nafarroako Toki eta Lurralde Entitateek ezinbesteko errealitate bat gogorarazi nahi dugu: gaur egun barneratuta ditugun eta gure eguneroko bizitzaren parte diren eskubide eta askatasun asko mugimendu feministaren borrokei eta historian zehar emakumeen antolamendu kolektiboari esker lortu dira. Diskurtso antifeministen edo erredukzionisten bidez feminismoa zalantzan jartzen edo deslegitimatzen den testuinguru sozial batean, haren eginkizun erabakigarria aldarrikatu behar da garapen sozialean, eskubideen hedapenean eta sistema demokratikoaren indartzean. Feminismoa ez da eguneroko bizitzatik kanpo geratzen, ezta ideologia iragankor batetik kanpo ere: indar historiko bat da, pertsona guztien bizitza eraldatu duena, gizon zein emakume, eta bizi garen oraina ahalbidetu duena. Azken mendean zehar, eta ez erresistentziarik gabe, feminismoak funtsezko mugarrak bultzatu ditu, egun zalantzan jartzen ez direnak. Borroka horiei esker, emakumeek boto eskubidea eta parte-hartze politikorako eskubidea lortu zuten; berdintasunean hezteko eskubidea; lan ordaindua, norberaren dirua kudeatzeko eskubidea eta autonomia ekonomikoa; mugitzeko askatasuna; dibortzioa; eta norberaren gorputzari buruz erabakitze eskubidea, sexu eta ugalketa eskubideak barne. Era berean, feminismoa funtsezkoa izan da zainketen banaketaren balio soziala eta ekonomikoa ikusarazteko eta aldarrikatzeko, horiek gabe ezin baita bizitza sostengatu. Aurrerapen horietako bakoitza ez zen ezerezetik heldu, ez ziren egun batetik besterako prozesuak izan. 300 urteko oinarri teorikoaren, hausnarketa





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/04/13

kritikoaren, mobilizazioaren eta emakume belaunaldien iraunkortasunaren emaitza dira. Hala ere, borroka horiek deslegitimatzen, minimizatzen edo ukatzen dituzten diskurtsoak ugaritzen ari dira gaur egun, berdintasuna lortuta dagoela esanez edo feminismoa mehatxu gisa aurkeztuz. Diskurtso horiek, historiari ezikusiaarena egiteaz gain, arriskuan jartzen dituzte konkistatutako eskubideak, eta zaildu egiten dute berdintasun erreala eta eraginkorrerantz aurrera egitea. Horren aurrean, berresten dugu feminismoa justizia sozialerako aldaketaren motorra izan dela eta izaten jarraitzen duela, eta horrek eskubideak ugaritu dituela, ez bakarrik emakumeentzat, baita jendarte osoarentzat ere. Haren balio historikoa eta egungo indarraldia aitortzea erantzukizun instituzional eta demokratikoa da. Honengatik guztiarengatik, adierazpen hau sinatu dugun toki eta lurralde erakundeok konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Sentsibilizazio eta komunikazio ekintzak bultzatzea, feminismoaren lorpen historikoei eta horrek eguneroko bizitzan izan duen eraginari balioa emateko, diskurtso antifeministen aurrean herritar informatu eta kritikoak izan gaitezen.
- Tokiko politika publikoetan genero ikuspegia zeharka txertatzea, berdintasunerako benetako aurrerapausoak bermatuz.
- Berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza indartzea, desberdintasunei eta indarkeriei aurre hartzeko funtsezko tresna gisa, batez ere gazteen artean, betiere teoria eta historia feministari balioa emanez.
- Mugimendu feministaren eta elkartegintzaren lana aitortzea eta babestea, kohesio sozialari, justiziarri eta demokraziari egindako ekarpen historikoa eta egungoa baloratuz. Ekintza horiek guztiek Nafarroa bidezkoagoa, berdintasunezkoagoa eta demokratikoagoa eraikitzen lagunduko dute, konkistatutako eskubideen defentsarekin eta hedapenarekin konprometitua. Izan ere, gaur egun eskubideez eta askatasunez gozaten badugu, borroka kolektiboari esker da. Feminismoak ekarri gintuen honaino. Feminismorik gabe ez dago erabateko demokraziarik. Berari esker, GAUR IZAN, EGON, ESAN ETA ERABAKI DEZAKEGU.”

Aho batez onartzen dute bildutakoek alkateak irakurritako mozioa.

Bigarren mozioa NUFK-etik bidalitakoa da, ondoren transkribatzen dena.

“Con motivo de la conmemoración el 8 de marzo del Día Internacional de la Mujer, declarado por Naciones Unidas en 1977, la Federación Española de Municipios y Provincias renueva su firme compromiso con la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres. Han pasado 45 años desde la constitución de esta federación, un período en el que la FEMP ha ido dando forma y consolidando su compromiso con la igualdad, instando a los gobiernos locales a incorporarla de manera progresiva en sus políticas públicas. Las resoluciones aprobadas en sus plenos en estos años han buscado contribuir a que el principio de igualdad se integre en la planificación municipal, impulsando su consideración transversal en todas las áreas de actuación, promoviendo la participación de las mujeres en la toma de decisiones públicas y favoreciendo que el lenguaje y las imágenes reflejen una sociedad más respetuosa, inclusiva y equitativa. En este recorrido resulta imprescindible destacar el trabajo orientado a reforzar la implicación de los ayuntamientos, diputaciones, cabildos y



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2026/04/14



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AAZH 7N2F 73TC LEA7

2026-02-26 akta - SEFYCU 305665



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/04/13



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROIZ
2026/04/14

consells en la prevenció i la atenció frente a la violencia contra las mujeres, así como el impulso de iniciativas destinadas a apoyar a las mujeres en situación de especial vulnerabilidad como las mujeres del medio rural, mujeres con discapacidad o mujeres mayores. Todo ello reafirmando siempre la voluntad común de avanzar hacia municipios más justos y libres de discriminación. Es necesario reforzar las políticas con enfoque interseccional que atiendan las múltiples discriminaciones que pueden concurrir en las mujeres por razón de origen, edad, discapacidad, situación socioeconómica, orientación sexual o residencia en el medio rural, garantizando que ninguna mujer quede atrás en el ejercicio de sus derechos. En estas décadas se ha avanzado de manera significativa, pero aún persisten brechas relevantes, especialmente en el ámbito laboral. Las mujeres siguen afrontando importantes diferencias salariales en comparación con los hombres. Según la Encuesta de Estructura Salarial de 2022, en la década 2012-2022 la brecha salarial se ha reducido en 6,83 puntos, sin duda, una desigualdad que sigue siendo inasumible, pero que pone de manifiesto la importancia de las políticas públicas, como la elevación del Salario Mínimo Interprofesional o la subida de las pensiones, para seguir avanzando en su reducción. Se trata de un desequilibrio influido, entre otros factores, por las dificultades de conciliación, el peso de los cuidados -que continúa recayendo en mayor medida sobre las mujeres siendo un trabajo no remunerado que limita su acceso a empleos de calidad y a posiciones de responsabilidad-, y por la distribución desigual de hombres y mujeres por sectores de actividad.

Las desigualdades que persisten no responden únicamente a circunstancias individuales, sino que obedecen a estructuras sociales, económicas y culturales que reproducen roles y estereotipos de género. Resulta necesario, por tanto, reforzar las políticas públicas que incidan en la redistribución de oportunidades, recursos y tiempos, para avanzar hacia un modelo social que reconozca el valor económico y social de los cuidados y garantice su corresponsabilidad efectiva. Asimismo, la feminización de la pobreza sigue siendo una realidad: en torno a 6,6 millones de mujeres en España se encuentran en riesgo de pobreza o de exclusión social. Pese a que, según el Observatorio de la Pobreza, Desigualdad y Exclusión social, la tasa de pobreza había descendido dos puntos en el año 2024 respecto a 2018, y a que en la última década tanto mujeres como hombres han reducido su tasa de riesgo de pobreza o exclusión social, mientras que la tasa femenina ha caído en 3,8 puntos entre 2014 y 2024, la masculina lo ha hecho en cinco puntos. Estos datos ponen de manifiesto que necesitamos seguir impulsando políticas de cuidados, de conciliación, de lucha contra la pobreza infantil o de empleo digno para que impacten directa y positivamente en las condiciones de vida de las mujeres. Este año, en el Día Internacional de la Mujer, Naciones Unidas invita a unirse al lema "Derechos. Justicia. Acción. Para todas las mujeres y niñas", y llama a reforzar en todo el mundo la eliminación de las barreras estructurales que dificultan la igualdad ante la justicia como leyes discriminatorias, protecciones jurídicas deficientes o determinadas prácticas y normas sociales que aún persisten. Cuando se actúa en condiciones de igualdad, los derechos se protegen y se defienden; la educación en igualdad se consolida; las mujeres eligen libremente participar y liderar en la sociedad, también en los ámbitos políticos y económicos; y el refuerzo de la protección y la prevención contribuye de manera decisiva a combatir la violencia contra las mujeres. Contamos, además, con experiencias de políticas locales que se configuran desde este enfoque y confirman





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/04/13



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROIZ
2026/04/14

que, cuando se invierte en programas sociales y de igualdad bien diseñados y evaluados mejora la situación de las mujeres y facilita su acceso a oportunidades de desarrollo personal y profesional. Son muchos los ayuntamientos que fueron abanderados con la puesta en marcha de áreas de igualdad y de lucha contra la violencia machista, observatorios de igualdad, políticas públicas avanzadas, consejos municipales de la mujer, dando espacio de participación al movimiento feminista y contribuyendo de forma decidida a los avances en igualdad de género. Sin embargo, hoy enfrentamos nuevos retos. La desinformación que minimiza evidencias como las diferencias de ingresos entre mujeres y hombres, la negación misma de la violencia machista y las desigualdades que aún persisten, suponen no solo un grave peligro para seguir avanzando hacia la igualdad plena, sino un intento de revertir los avances conseguidos. Pese a que el Índice de Igualdad de Género de 2024 del Instituto Europeo de la Igualdad de Género (EIGE) ha confirmado que España se mantiene como el cuarto país más avanzado en igualdad de género dentro de la Unión Europea, sólo por detrás de Suecia, Dinamarca y Países Bajos, hemos de mostrar también nuestra preocupación por los casos de acoso sexual en la esfera pública, que nos obligan a hacer un esfuerzo en la aprobación de protocolos que garanticen espacios seguros para las mujeres. Por todo ello, en este día 8 de marzo de 2026, la FEMP acuerda:

- Reafirmar su compromiso con la igualdad entre mujeres y hombres basada en la igualdad ante la ley y la igualdad de oportunidades, pilares de una sociedad libre y democrática, y la lucha contra los movimientos antigénero, que ponen en riesgo los avances en materia de igualdad.
- Reiterar la condena de cualquier forma de violencia contra las mujeres, (física, psicológica, sexual, digital, vicaria, etc.) y de las situaciones de explotación vinculadas a la prostitución y a la trata de seres humanos, así como el apoyo a las víctimas, impulsando acciones de prevención, sensibilización, atención y coordinación desde el ámbito local.
- Promover, en colaboración con los agentes sociales y en el marco de las competencias locales, iniciativas que favorezcan el empleo digno, la reducción de la temporalidad y la parcialidad involuntaria, y la eliminación de la brecha salarial, especialmente en aquellos sectores altamente feminizados.
- Invitar a integrar, de manera transversal e interseccional el principio de igualdad y no discriminación en las políticas públicas locales, reforzando la eficacia, la transparencia y la responsabilidad de las actuaciones públicas.
- Reivindicar la necesidad de dotar a las entidades locales de financiación suficiente, estable y finalista para el desarrollo de políticas de igualdad, prevención de la violencia y atención integral a las víctimas, asegurando que dichas actuaciones no queden supeditadas a coyunturas económicas ni a desigualdades territoriales.
- Comprometerse a impulsar y recomendar a los ayuntamientos la aprobación de protocolos frente al acoso sexual, así como el fomento de espacios seguros para las mujeres.





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/04/13

- *Denunciar el negacionismo de la desigualdad y de la violencia machista, que daña de forma sustancial la percepción de la lucha de las mujeres por alcanzar la igualdad plena, y reafirmar el rechazo frontal a la violencia estructural que padecen las mujeres. La igualdad efectiva entre mujeres y hombres exige no solo la eliminación de la discriminación formal, sino también la garantía de condiciones materiales que permitan el ejercicio real de los derechos. Ello requiere políticas públicas activas, orientadas a reducir desigualdades y a fortalecer la cohesión social en nuestros municipios y provincias. “*

Mozio hau ere bildutakoek aho batez onartzen dute.

Azken mozioa Eguesibarreko udaletik bidalitakoa da, Sarrigurenen gertatutako hilketa matxistaren inngurukoa:

Atzo, otsailak 20, Sarrigurenen gertatutako hilketa eta eraso larriaren aurrean, non bi emakume biktima izan ziren, horietako bat ustez senarrak hil zuen indarkeria matxistako kasu batean, baieztapen ofizialaren zain, eta bestea larri zaurituta, Eguesibarko Udalak adierazpen instituzional hau onartu du emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpen guztiak salatzeko:

- 1. Eguesibarko Udalak bere gaitzespenik handiena eta sumindurarik sakonena adierazi nahi ditu berriki ezagututako indarkeria matxistaren hilketaren aurrean. Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak emakumeen osotasun fisiko eta moralaren aurkako erasoak dira, eta, ondorioz, giza eskubide guztien urraketa larri eta onartezina. Hilketa matxismoaren adierazpenik larriena da, eta lehen mailako arazo soziala, duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurka egiten duena, batez ere hura jasaten duten eta aurre egiten dieten emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurka.*
- 2. Eguesibarko Udalak babes eta elkartasun osoa helarazten die biktimen senideei eta ingurune hurbilari. Udalak bere esku jartzen ditu dagozkion udal zerbitzuak eta hiru dolu-egun izendatzen ditu udalerrian.*
- 3. Era berean, erabat salatzen eta gaitzesten ditu emakumeek jasaten dituzten indarkeria matxista guztiak, eta herritarrei gogorarazten die gure gizartean oraindik nagusi den emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazgarri direla.*
- 4. Gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko konpromisoa berresten du, bere eskumenen esparruan eta indarrean dagoen legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurka erabilitako indarkeria guztien aurkako politika aktibo, integral eta koordinatuak garatuz.*
- 5. Eta herritarrei dei egiten die emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan zeregin aktiboa izan dezaten. Guztion erantzukizuna da emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenen aurrean jarrera aktiboa izatea, eta ez onartzea, isilik ez egotea eta indarkeria jasan dutenei gure babesa adieraztea; azken batean, eraso matxisten aurrean erantzukizun indibidual eta kolektiboa hartzea. Horregatik guztiagatik, Eguesibarko Udalak erabat arbuiatzen du atzo, otsailak 20, gure udalerrian gertatutako indarkeria matxista hori, eta elkarretaratze bat deitzen du horrelako*



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONGOZ
2026/04/14





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/04/13



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROINGOZ
2026/04/14

gertakariak gaitzesteko eta arbuizatzeko, gaur, otsailak 21, larunbata, 17:00etan, Udaletxean, herritar eta elkarte guztiei parte hartzeko deia eginez. Eta bat egiten du mugimendu feministak Eguesibarren otsailaren 23an, astelehena, 19:00etan Sarrigurengo Foruen plazan (Pinuko biribilgunea) egindako deialdiarekin.”

Hirugarren mozio hau ere aho batez onartzen dute bildutakoek.

7. - Batzordeen informazioa.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Oihanzabal eskolako bilera izan zen, aurreko kontuen aurkezpena egin eta hurrengo ikasturteko jardunaldia bozkatu zen. Kezka agertu zuen zuendaritzak haur berrien kopurua jeisten ari delako eta hortaz ate irekien jardunaldi bat burutuko da.

Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

korrika kulturalaren baitan Oihanzabal eskolan Kiram Magoaren ikuskizuna egingo da martxoaren 18an. Bi abesbatzen kontzertua egingo da bat maiatzaren 17an Apeztegiaberiko ganbaran Leitzako abesbatzak eskeinia eta bestea uda ondoren Gogo Batez kantu ekimenaren baitan.

Aizarotzko kontzejuan ospatutako da Basaburuko eguna aurten Kultur Batzordea bilduta da herriko ordezkarien prestaketekin hasteko. Udalak ordaindu du kontzertu bat eta eskatuko ditu puzgarriak eta berrerabiltzeko edalontziak.

Pilota partiduaz, bazkariak eta beste gaueko kontzertuaz kontzejua arduratuko da.

Maitzaren 24an Apeztegiaberriko ganbaran bertso eskolen topaketa burutuko da

Berdintasun Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Ultzamaldeko mankomunitateko bilera egin zen eta non aurreko urteko memoria aurkeztu zuten. Menpekotasun egoeran daudenen koipurua jeitsi dela aipatu zen bertan baita ere oinarrizko errenta eskaten dutenak. Zaintzen inguruko film motza Jaunsaratsen egitea eskaini zuten.

Martxoaren 8aren inguruan, ostiralean, martxoak 6 afaria egingo da Igoako ostatuan eta martxoaren 20an antzerkia Apeztegiaberriko ganbaran

7.- Informazio orokorra.

- IE3 enpresarekin bilera burutu du eguneko egoitzako langileen profilak finkatzeko. Martxoaren 4an bukatuko da eskaerak aurkezteko epea eta martxoaren 10ean euskara proba burutuko da eta 13an azterketa teorikoa.





SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2026/04/13



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONGOZ
2026/04/14

- Garraio Ataleko zuzendariarekin bilera egin da eta bertan 15.000 euroko enmendakina lanzadera zerbitzua jartzeko izango dela adostu zen. Zerbitzu honen bidez Basaburutik Urritza edo Auzara joango da bertan Iruñera joateko autobusa hartzeko. Lehenengo zerbitzua goizeko 7etan hasiko da Auzan Iruñera joateko autobusa hartzeko, bigarrena 10ak aldera Irurtzunerara joateko eta buelta eguardian eta arratsaldean izango dira.

Aurreko egunean abisatu beharko da taxi gidaria zerbitzua erabili ahal izateko. Martxoaren erdialdean jarriko da martxan.

Irurtzunerara joateko zerbitzua astelehenetik igandera izango da eta aldiz Auzara joateko astelehenetik ostiralera.

8. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:42 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du

